

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 162. alea - 2012ko apirila



Amaikak Baten lorpen
handiena gogoan



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Zuriñe Gredilla Kareaga

Kalbeton Zumardia, 5
Tel.: 666 720 313
txirbila@gmail.com
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana



JANTZIDENDA
LERSUNDI KALEA, 37
20820 DEBA



BURU - ZURI Taberna

- Otaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Allika argazkiak eta Amaiak Bat

Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua

Banaketa arduraduna:
Juanma Oartzabal

Inprimategia:
Euskalinpri

Tirada:
1.400 ale

Lege gordailua:
SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

Argitaratzaileak



Laguntzaileak



Debako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

AKTIBIDEA



6



8-9

Allika argazkiak



10

KOLABORAZIOA.

Eider Zulaika,
"Zozomikote". 05.

ALBISTEA. Herrira mugimendua aurkeztu dute Deban. 06.

KALE INKESTA. Hondakinen kudeaketa, atez atekoa... 07.

ALBISTEAK. Amaiak Bat, Atotxako 1962ko garai-pena oroitzuz.

08-09.

Tene Mujika Beka. 10.

BERRIKETAN GAZTEA. Kanbora bisita, denborapasak... 11-14.

LABURRAK. 16-17.

ZERBITZUAK. 18.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko deniei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Uda bat hamaika irri, euskara giltzarri

Nork ez du ezagutzen Euskal Udalekuetan umetan ibili den lagunik? Edo nork ez dauka bere denbora librean Euskal Udalekuei eskaini dion ezagunik? Nork ez du noizbait Goñiko Dorrekoako katutxoarekin amets egin? Nor ez da ibili Bernedoko landetan erero? Nor ez da Urdirotzeko errekan bainatu? Edo Abaigarreko haskara sartu?

Nik badaukat lagun bat umetan Euskal Udalekuetako txanda guztietan ibili zena: Urdirotzen, Goñin, Bernedon eta Abaigarren egon zen. Berarentzat uda heltzea eta Euskal Udalekuetara joatea bat zetozen; ez zegoen Euskal Udalekurik gabeko udarik. Handi egin zenean, begirale lanetan hasi zen; non eta Euskal Udalekuetan. Ez zuen sosik kobratzen, baina ez zitzaion inporta; berak txikitan jaso zuena bueltatu nahi zuen, umeei sentiarazi nahi baitzien

berak txikitan bizi izan zuena.

Aurtengo uda ere heltzeaz dago eta, 1965. urtean lehenengoz egin zen bezala, dagoeneko bagabiltza udaldia ilusioz prestatzen. Aurten ere, Abaigarren, Bernedon eta Goñin uda ahaztezina biziko dugu euskaratik eta euskaraz.

Guk badakigu zer sentitzen eta bizitzen den gure udalekuetan. Ondo pasatzea, maitatzea, ikastea, laguntzea... dira urte hauetan guztietan jaso dugun ordaina. Inolako interes ekonomikorik gabe, lan egiteko prest dagoen lan talde paregabea gara. Ordainetan, Euskal Udalekuen magia jasotzen dugu; norberaren azalean sentitu gabe, kontatu edo deskribatu ezin daitekeena. Eta, zuk, probatu nahi duzu Euskal Udalekuen magia?

Goñi-Abaigar-Bernedo Euskal Udalekuak



ARGAZKI ZAHARRA

1910eko Ostiral Santuko prozesioa



Iturria: Egun Zaharretako Deba liburua.

“La Magdalena”, “Huerto Santo”, “San Juan Evangelista”, “Maria Dolorosa” ageri dira, “Cañaras” eta “Pillaras” herrikoak ere bai.

Ezkerretara, “Magdalena” eramaten Francisco Riesgo *Kantoi*. Barrean, eskuinetara Nicolás Egaña. “Magdalena” ondoan, aurrean, Guillermo Irusta.

Prozesioko partedunen artean ageri dira Antonio Aparicio, M. Corostola, José Luis Corostola, Angel Urquiri, Segundo Olave *Paxio*, Luis Arrizabalo, Blas Gorrochategui, Arregui, Mariano Egaña, *Lojaberri* eta abar.

Miguel Angel Landak emana.



EIDER ZULAIKA

ZOZOMIKOTE

Azken egun hauetan lagunarte gehienek solasgai bertsua izan dute; atez-atekoaren inguruko zalan-tza izan liteke hizketa gai, edota Athleticek UEFAN lortu dituen azken emaitzak.

Baliteke debarrok, Aste Santu hauetan, hitzetik hortzera erabili izana Euskal Herriko Itzuliaren inguruko gorabeherak; edota, baliteke zenbaitzuk Ertzaintzak zauritutako Athletic-zalearen inguruan aritzea solasean...

Baina ez! Aste Santu buelta honetan ahoz aho dabilen gaia, nola ez, eguraldia izan da! Hara, esan dut! Bai, bai, egia da, gai hau igogailuko hitz-aspertutzat har genezake! Nolanahi ere, oso erabilia dugu eguraldiarena; zeri buruz hitz egin ez dakigunean, hori erabiltzen baitugu normalean.

Egia esan, zer pentsatua eman dit azken egunotako giro euritsu honek. Aste Santuetako oporraldiarekin batera egokitu da giro aldaketa, eta honek nik uste baino eragin handiagoa du herritarrengan.

Done Jakue bidea egiten ari direnak busti busti eginik joan dira azaltzen herrira, eskolarik ez duten hurrek denbora non pasa ezin asmatuta pasa dute denborarik gehiena, hondartza eta alamedak ez dute izan martxoko azken hamabostaldian izan zuten giro alai eta zaratzatsua... Eguraldi

trakets honekin aterpeko ekintzak atera dira nagusi. Datu bat ematearren Donostiako Aquarium-ak inoizko bisitari kopuru handiena izan du, honek adierazten du. Jeje!

Baina bada alde onik ere! Ur eskasiaren berria nonahi entzun dugu, aurtengo negua oso lehorra izan dela eta. Egunduritu euritsu hauek inoiz baino hobeto etorriko zaizkigu gure pantanoak betetzeko, baita gure mendi eta baratzeak ezaugarri duten kolore polit hori berreskuratzeko ere...

Hori gutxi ez, eta, gure kultura tradizionalaren inguruko gauza berri bat ikasteko parada eman didate eguraldiaren inguruko solasaldi anitz hauek. Ez dut inoiz ikasiko Tenporak noiz izaten diren, ezta, hil beheran edota hil goran, noiz moztu behar den ilea ere. Aldiz, "zozomikote" hitza ez zait bere-

halakoan ahaztuko. Itxuraz, nekazari eta artzain munduan eguraldiaren iragarpena egiteko erabiltzen zuten. Alegia, "zozomikote" martxoaren azken bi egun eta erdiek eta apirilaren lehen bi egun eta erdiek osatzen dute. Eta egun horietan nolabaiteko eguraldi aldaketa aurreikusten dute. Egunduritsuetatik egundurizkitsuetara, giro lehorretik giro bustira...

Hara! Hori izan da ba, nik azken egunotan deskubritu dudana!





HERRIRA aurkeztu dute Kultur Elkarte betean



Herrira mugimendu berria aurkeztu zen martxoaren 23an, 80 lagunen aurrean, "Euskal Herriko preso eta iheslarien arazoari irtenbidea emateko asmoz". Itziar Enbilek egin zituen taldeko aurkezpen lanak, egitasmoa "parte-hartzailea, anitza eta irekia" izango dela nabarmenduz eta apirilaren 20an egingo den batzarrera "helburuarekin bat egiten duten herritar guztiak" gonbidatuz, guztien ekarpenak, ideiak eta zalantzak bildu nahi dituztelako, "ur tantak ia ikusezinak izan arren, itsasoa osatzen dutelako". Azaldu zuen, baita ere, Osioko eraikinean udalak gela bat laga diela materiala bildu eta bilerak egiteko.

Herrira elkarte honen sorrera, izaera, helburu eta jardura nagusien nondik norakoak argi eta garbi aurkeztu zituen Nagore Garcia itziartarrak, mugimenduko Gipuzkoako ardura-dunak. "Bizi dugun egoera berria dela eta, lan metaketa eta dinamika berritzailea" eraman nahi dute aurrera, "Euskal Herriko herri eta auzo guztietan sustraituta egongo diren herri-bilguneak sortuz". Lan egiterakoan "ez dutela ideologia edo eta politikaren menpe" jardungo. Eta "amnistia-aren kontzeptua ipar gisara izanik, preso eta iheslariak etxeratze bidean" ibilbide orri bat ezarria dutela helburuak mailakatzerakoan:

- 1.-Egoera oso larrian dauden 15 presoak kaleratzea.
- 2.-Bizi arteko zigor doktrinarekin amaitzea (77 preso, tarte-

an herriko Gabirondo "Txispas" eta Urain "Alkorta") eta hauek etxeratzea.

3.-Hiru laurdenak beteta dituztenek, 137 preso, legea betez, espetxeak uztea.

4.-Presoak Euskal Herriko espetxeetan biltzea.

5.-Presoek eta iheslariak parte hartzea konponbiderako prozesuan.

Ondoren, herriko presoek hiru senidek gaur egungo egoeraren berri eman zuten.

Etorkizunari itxaropenez begiratuta, baina eguneroko errealitate gordinarekin topo egiten dutela adierazi zuten.

"Azken lagunen bisitan, detektagailua ezin gairatu eta, lagunetako batek funtzionarioaren aurrean biluztu egin behar izan zuen, kristalera aurreko bisitara sartu ahal izateko". Baina herritarren elkartasuna eskertu beharrean egon ziren

"etxekoek daukagun poza ikusirik zenbat lagun eta adiskide berri egin dituen, kartzela barruan egonda ezagututakoak, askotan familiarrak

baino bidaia gehiago eginez".

Amaitzeko, maiatzaren 19rako jarri zuten zita. Euskal Herriko herri eta auzo guztietako plazak bete nahi dira ekintza ikusgarria burutzeko. Eta "Txispas", "Erlete", "Kixkur" eta Galarraga gogoan, txalo zaparrada batez bukatu zen aurkezpena.

Joseba Escudero

Maiatzaren 19rako jarri zuten zita. Euskal Herriko herri eta auzo guztietako plazak bete nahi dira ekintza ikusgarria burutzeko

Kuadrillategiko gazteek hirugarren postua lortu dute Txirri, Mirri eta Txiribitonon ibilbidearen 40. urtemuga ospatzeko martxoan antolatutako bideo lehiaketan

Txirri, Mirri eta Txiribitonon euren jarduna abiatu zuteneko 40. urtemuga ospatzen dute aurten, eta horren harira martxoan antolatutako bideo lehiaketan hirugarren postua lortu dute Debako Kuadrillategiko gazteek.

Euskal pailazoen "Zapi zuria" abesti ezaguna oinarri hartuta, Calbeton Zumardian grabatu zuten bideoa, herriko haurren laguntzarekin, eta 119 boto lortu zituzten Facebooken bitartez egindako bozketan. Sailkapen orokorrean, debarren

aurretik gelditu ziren Donostiako Manteoko dantza taldekoak zein Donostiako Zurriola Musika eta Dantza Eskolako neska-mutilak. Lehiaketara aurkeztutako bideo guztiak Facebooken eta Youtube atarian ikusgai daude dagoeneko.

Aurreikuspenen arabera, 2013tik aurrera Gipuzkoako 34 udalerritan atez ateko zabor bilketarekin hasiko dira. Azken hileotan, sistema horren inguruko zalantzak eta ika-mikak nabarmenak dira. Hondakinen kudeaketari buruz herritarrek zer iritzi (eta zer ohitura) duten jakin nahian irten gara kalera oraingoan. Hona hemen erantzunak:

Jose Luis Urbieto
65 urte



“Nik badaukat birziklatzeko ohitura, eta gauza bakoitza bere zabor ontzira botatzeko ahalegina egiten dut. Atez ateko zabor bilketari buruz entzundakoa bakarrik dakit; batzuek sistema ona dela diote, beste batzuek ez dela ona... Nire ustez ona izango da, baina probatu arte ba ez dakit. Gutxi informatuta gaude, baina nik uste dut poliki-poliki informatzen joango gara. Orokorrean, zabor gutxiago sortzen bada, askoz hobeto. Eta berberabilpenari ere garrantzia ematen diot, alde handia dago”.

Itziar Aguirre
66 urte



“Nik dena birziklatzen dut: kartoia, papera, jogurt poteak, latak, esnearen tetrabrikak... Atez ateko zabor bilketari buruz entzundakoa dakit nik... baina probatu arte ez dakit. Orain asko irakurtzen eta hitz egiten da gai horri buruz, baina uste dut oso informatuta agian ez gaudela. Zabor gehiegi sortzen dugu, eta zerbait ezabatu egin behar da. Niretzat, berrerabilpena ere garrantzitsua da, bai, dena aprobetxatu behar da”.

Naia Rodriguez
36 urte



“Birziklatzen dut, bai: beira, plastikoa, kartoia eta organikoa. Atez atekoari buruz entzundakoa dakit, baina ez dakit oraindik portalak prestatu behar dituzten. Badi-rudi arazo bat sor daki-gukela, baina egin beharreko zerbait iruditzen zait. Uste dut jendea informatuta dagoela, baina ez duela entzun nahi, arazo bat delako. Zabor gehiago ala gutxiago sortzeari ere ematen diot garrantzia, eta guk gehiago egin behar dugu, baina baita enpresek eta abar ere: zabor gutxiago sortu, plastiko gutxiago erabili... Guretzat berberabilpena ere garrantzitsua da, saiatzen gara paperak, kristalezko poteak eta abar berrerabil-tzen”.

Joseba Peña
55 urte



“Papera, plastikoa, beira, pilak... birziklatzen dut, bai. Atez ateko zabor bilketa konplikatu iruditzen zait, baina egokia. Ni Bizkaian bizi naiz, eta inguru haietan ez da asko entzuten, baina badakit hemen, Donostia aldean, arazoak badaudela eta informazio gehiago ere bai. Eremu batzuetan badakite hori zer den. Nik uste dut ahalik eta zabor gutxien sortu behar dela, mundua ondorengoen-tzat hobeto geratzeko. Gainera, gehienetan, berria erosteko esaten dizute, zaharrak ez duela konpontzea merezi. Nik berrerabilpenari ere garrantzia ematen diot, ahal dudan gutzia konpontzen saiatzen naiz”.

Gaztelekua (Alaitz Escudero, Maialen Baroja eta Ixone Juaristi)

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

API
Nº. 379

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitadaren administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Duela mende erdi Atotxan lortutako garaipen handia oroitu nahi du Amaikak Batek maitzean

Maitzean, bere ibilbideko lorpenik garrantzitsuenetako bat oroituko du Amaikak Batek, mende erdia pasa baita Debako futbol taldeak Hirugarren Mailara igotzeko aukera izan zuenetik. Harrezkero, makina bat anekdota eta bizipen izan ditu Amaikak Batek; baina, 1962ko apirilaren 8an, Atotxan, Mondragon taldearen aurka lortutako garaipena benetan garrantzitsua izan zen taldearen historian. Hori guztia herritarrekin partekatu nahi dute urtemugako ospakizunekin, oraina ez ezik iragana ere ezagutu dezaten.

Erakusketa bat, oroigarri banaketa, bazkaria... Egitarau berezia antolatu du Amaikak Bat Futbol Taldeak datorren maiatzaren 5erako. Atotxan, 1962ko finalean, Mondragon taldeari 3-0 irabazi zioneko 50. urtemuga apirilaren 8an bete zen; baina, Aste Santuko opor egunak zirela-eta, datorren hilera arte atzeratu ditu urteurreneko ospakizunak.

Gaur egun, Amaikak Batek oso erro sendoak ditu gure herrian; horren erakusle da, besteak beste, 730 bazkide-tik gora dituela. Dabi Sagarna lehendakariak aipatu bezala, gainera, azken urteotan adin guztietako zaleak hurbildu ohi dira Errota Zaharrera partidak ikustera –kanpoan jokatzen duenean ere bidaiatzeko prest egoten dira–, taldearen kamisetak nonahi ikustea erraza da, astero-astero dirua irabazteko ateratzen diren rifa guztiak saltzea ere lortzen dute... “eta, argi dago, hori dena herria bolkatuta dagoen seinale da!”.

Amaikak Batek orain bizi duen errealitatearekin pozarren daude taldeko arduradun zein jokalariek; baina, Sagarnak azaldu bezala, futbol taldeak iraganean bizi izan zituen kontuak ezezagunak dira askorentzat. “Horregatik, iruditu zitzaigun, Atotxan bizi izandako garaipenaren urtemuga baliatzea aukera polita izan daitekeela gaurko jendeari jakinarazteko historian zehar ere lan gogorra egin zela Amaikak Baten inguruan –baliabide okerragoekin askotan–. Duela 50 urte gertatu zena oroitu eta jakinarazi nahi dugu, herritarrekin partekatu, guztiak jakin dezaten hemen ez gaudela gaur egungoak bakarrik, urte askoko ibilbidea baitauek atzean”.

1962. urtean, Amaikak Bateko idazkari lanetan aritzen zen Pako Salegiren esanetan, “sasoi hartan taldeak herrian zeukan garrantzia gaur egun duenaren antzekoa zen, baina orduan orain baino aukera gutxiago zegoen. Futbola eta Burdin Gurutz zeuden garai hartan, baina beste

elkarterik ez zegoen, eta garrantzi gehien futbolak zuen”.

Garai haietan, baldintza aproposak zeuden taldearen bueltan, jokalariei zein zuzendaritzari zegokienez. Jose Esnaola zen orduko elkarteko lehendakaria, eta Jose Mari Iparragirre entrenatzailea; bata zein bestea, Pakoren esanetan, zorrotzak eta azkarrak ziren beren jardunean. Bitxikeri gisa, atzera begira jarrita, Pakok gogoan du, adibidez, elkarteko kuotak eskuz kobratzen zirela, eta Amaikak Baten finantziaketarako diru-iturri nagusi udako berbenak izaten zirela.

Denboraldi eta amaiera aparta

“Denboraldi oso ona izan zuten orduan, jarraian 25 bat partida irabazi baitzituen Amaikak. Izugarria izan zen... taldea oso ondo eta indartsu zebilen orokorrean”. Denboraldiko finala Atotxan jokatu zen, eta egun hura ere “izugarria” izan zen Deban. Pako Salegik azaldu bezala, “tren berezia antolatu zen hara joateko, eta gu denok –zuzendaritzako kideak, jokalariek eta partida guztietara joaten ziren beste bizpahiru lagun– autobusez joan ginen. Meagasen egin genuen geldidunea”. Partida 3-0 irabazi bazuten ere, “herrira itzultzean, ez zegoen ez musika eta ez ezer, banda autobusetik udaletxeraino joateko baimena bakarrik lortu zen, Aste Santuan garai haietan ez zutelako uzten bestelako ospakizunik egiten”. Atotxan lortutako garaipen hark Amaikak Bati kategoriaz igotzeko aukera ematen zion –egungo 2. mailaren antzekoa zen garai hartako 3. maila–. Baina arlo ekonomikoa aztertu ondoren, baliabide nahikorik ez izatean, zuzendaritzak uko egin zion mailaz igotzeari. Erabaki “gogorra” izan zen, baina hartu beharrekoa, taldearen etorkizunerako. Hori hala, Mondragon taldeak lortu zuen kategoriaz igotzeko pasea; “Bazkari batera gonbidatu gintuzten gero! (kar-kar), eta giro paregabearen egon ginen denok batera Arrasaten”.

Izaro Aulestiarte



Maiatzaren 5erako antolatutako egitarau berezia:

- 12:00etan Amaiak Batek antolatutako erakusketa inauguratuko da Agirre Jauregian. Astebetez mantenduko da zabalik.
- Ondoren, 1962ko taldeko jokalariei omenaldia egingo diete. Otoitz bat egingo da hildako jokalarien oroimenez eta Amaiak Baten oroigarri bereziak banatuko dituzte.
- 14:00ak aldera, bazkaria Ozio Bide elkartearen (1962ko taldekideak eta Amaiak Bateko lehendakari ohiak gonbidatu dituzte).
- 17:00etan, Amaiak Bat-Intxurre ligako partida. Lehia hasi aurretik, Errotazar futbol zelaian ongietorria egingo diete omendutako jokalariei eta ohorezko satea eskainiko zaie.





Xabier Gantzarain Etxaniz

Azkoitian jaio zen, 1975ean. Arte Ederretan lizentziaduna da EHUan, eta Arte Garaikidearen Historian eta Ikusizko Kulturaren Masterra lortu zuen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Artelekuko "Zehar" aldizkariaren editorea izan da, hainbat libururen egilea ("Lisboa min", "Van Gogh, bihotzean eguzkia", "Epelde, mende baten soinua"), eta komunikabide askotako kolaboratzailea ("Euskadi Irratia", "Nabarra", "Berria").

Xabier Gantzarain azkoitiarrak irabazi du aurtengo Tene Mujika beka

Xabier Gantzarain idazle eta arte-kritiko azkoitiarrak irabazi du aurtengo Tene Mujika beka, Euskal Herriko arte garaikidea eta historia lotzen dituen azterlana egiteko, halaxe erabaki baitu sariketako epaimahaiak (Lorea Agirre, Alberto Barandiaran eta Elixabete Garmendiak osaturikoak).

Euskal arte modernoaz aritzean, berehala datozkigu burura Chillida, Oteiza, Zumeta eta beste zenbait izen; alabaina, artista asko sortu eta garatu da geroztik, eta horietako batzuk ospea eta itzala lortu dituzte, bai gure herrian bai atzerrian. Egileak berak azaltzen duen moduan, "arteak badu, arte plastikoek badute, beste arteekin alderatuta, ahalmen izugarri bat, indar berezi bat: zeinuak dira, maila sinbolikoan lan egiten dute, ikono bihurtzen dira. Irudiekin egiten dute lan, hitzekin, edozerekin, eta batuketa horreta-

tik geure garaiaren beste irakurketa bat sortzen da, mass-medietatik bestelakoa, oso bestelakoa, baina haiena bezain beharrezkoa. Iragan hurbila aztertzerakoan, hemerrotek miatzea bururatzen zaigu, gertaerak aztertzea, testigantzak jasotzea, eta bai, egin beharreko lana da hori, baina gure asmoa iraganari beste begi batzuekin begiratzea da: historiari artearen aldetik heltzea, eta arteari historiaren aldetik, eta Euskal Herriaren azken 60 urteetako historia arte plastikoetan nola jaso den aztertzea".

Xabier Gantzarainek bere proiektua gauzatzekoan aztertuko dituen artisten artean daude, besteak beste, Ibon Aranberri, Asier Mendizabal, Saioa Olmo, Juan Perez Agirregoikoa, Maider Lopez, Itziar Okariz, Txomin Badiola, Sergio Prego, Iñaki Garmendia eta Oier Etxeberria.

Literatur lehiaketatik, bekara



Xabier Mendiguren idazle eta editoreak "Tene Mujika: literatur lehiaketatik, bekara" izenburuko hitzaldia eskaini zuen martxoaren erdialdean, Debako Agirre Jauregian.

Kultura Batzordeak antolatutako hitzorduan, 1983an abian jarritako Tene Mujika ipuin lehiaketaren ibilbideaz jardun zuen Mendigurenek, eta hogeitaz urteren ostean lehengo sariketa hura zergatik eta zertarako birmoldatu zen ere azaldu zuen; ipuin lehiaketa bertan behera utzi eta haren ordez Tene Mujika historia hurbileko beka deialdia antolatzen hasi baitziren Debako Udala eta Elkar argitaletxea. "Ipuin sariketak laguntza



handia izan zitezkeen 80ko hamarkadan, literatura berri bat sortzekotan zen garai hartan: idazle gazteentzako trebalekua, irakurle berrientzako entrenamendua ere bai... Orain, ordea, ipuin lehiaketek ez dute orduan zuten funtzio bera. Gainera, ipuin lehiaketen inflazio bat izan da, eta zaila da denetan lan txukunak topatzea". Garai bakoitzak bere premiak dituela eta horiei begira lan egitea komeni dela irizita sortu zuten, bada, egun ezagutzen dugun beka deialdia, azken 50 edo 60 urteetan Euskal Herrian gertatutakoei buruzko idazlanak sustatzen dituen. "Formatu honetan ere, Tene Mujikak erreferente izaten darrai".

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

BERRIKETA GAZTEA

2012ko apirila
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

KANBORA BISITA



Aurten, lehenengo aldiz, Debako Mendata Institutuak Lapurdiko Kanboko Errobi Ikastetxearekin elkartrukea egin du euskararen erabilera eta euskalkien ezagutza bultzatzeko asmoz. Lehen hiruhilabetean, elkarri gutunak idatziz eman zioten hasiera harremanari, eta orain, ikastetxe bakoitzak hainbat jarduera antolatu ditu besteari eskaintzeko. Horrela, martxoaren 15etik 16ra Kanbora joan dira 3.DBHko ikasle batzuk eta kanboarrek euren etxeetan hartu dituzte lotarako, eta debarrek gauza bera egin dute martxoaren 26tik 27ra Kanbokoak hona etorritakoan: eguna ederki pasa eta etxean hartu, familia giroan.

Oraingoan, Kanboko egonaldia berri eman go dizuegu. Han pasa zituzten bi egunetan zehar ekintza hauek egin zituzten:

Lehenengo, Errobi Kolegioa bisitatu zuten; eta Kanboko ikasleek prestatutako aurkezpenak jaso zituzten. Aurkezpenean, Iparraldeaz eta Kanbo herriaz azalpen batzuk eskaini zizkieten, eta eurek asmatutako bertsoak kantatu zituzten. Gero, bazkaria hartu eta Kanbon bisitaxo bat egitera joan ziren, pilotalekura iritsi eta bertan bazkaltzeko. Denbora libre pixka bat ere izan zuten elkar hobeto ezagutu ahal izateko. Jarraian, Isturitze eta Otsozelaia harpeak bisitatzeko autobusa hartu zuten. Bertara iristean, lehendabizi Iparraldekoak sartu ziren bisita frantsesez egin ahal izateko, eta gero debarrak sartu

ziren, bisita bera gaztelaniaz egiteko; zoritxarrez, Iparraldean euskarak bizi duen egoera oso eskasa da, eta ezin izan zuten euskaraz egingo zien gidaririk aurkitu. Gero, Kanbora itzuli eta Herriko Etxean, Udalean, harrera egin zieten Errobi Kolegioko ordezkariak, eta Udaleko zenbait kideak. Bertako alkateak, Vincent Bruk, eta kultur zinegotziak, Beñat Garat-ek, Kanbo eta Debak duten harremanari buruz hitz egin zieten. Debako eta Kanboko herriak anaiturik daude; horregatik, Kanboko Jeikadi dantza taldeak eta Debako Gure Kai dantza taldeak, eta baita Kanboarrak Mendiz Mendi eta Debako Burdin Kurutz mendi taldeek ere, elkartrukeak egiten dituzte. Harrera amaitzean, ikasle bakoitza bere elkartruke kidea-ekin joan zen etxera.

Hurrengo egunean, goizean goiz Baionara joan ziren, eta denbora libre izan zuten elkarrekin lasai egiteko. Segidan, Euskal Museoa bisitatzera joan ziren; oraingoan, bisita Iparraldekoek eta Hegoaldekoek elkarrekin egin zuten eta euskaraz egiteko aukera izan zuten. Bisita interesgarria izan zen, eta zer ikasia eman zuen. Eguerdian, elkarrekin bazkaldu ondoren, Baionan bisita gidatu historikoa egin zuten, bertako historia apur bat ezagutzeko. Jarraian, denbora libre izan zuten, elkar agurtzeko, eta zer hobea tarte horretan Nutellazko Crepe gozo bat jatea baino! Azkenik, Debara itzuli ziren, Deban berriro elkar ikusteko irrikaz, esperientzia bikaina izan baitzen.



ELKARRIZKETA

Kanboko lau ikasleri galdera batzuk egin dizkiegu, beraien egunerokotasunari buruz eta Iparraldean euskarak duen garrantziari buruz jakin nahian. Elkarrizketatu ditugun ikasleak hauek dira: Joana Blatchier (J.B.), Claire Saragueta (C.S.), Lukas Formeaux (L.F.) eta Theo Sarrosqui (T.S).

“Batzuek astean hiru orduz bakarrik izaten ditugu euskarazko klaseak, eta beste batzuek hiru ordu horiez gain Historia ere euskaraz ematen dugu”



Zer herritako ikasleak elkartzen zarete Errobi eskolan?

Denek. Uztaritze, Itxassou, Louhossou, Ezpeleta, Kanbo eta Jarsuko ikasleak elkartzen gara. Herriak txikiak dira eta eskola Kanbon bakarrik dugu; beraz, goizero autobus bat hartu beharra dugu, edo gurasoek autoan ekartzen gaituzte.

Frantsesaz gain zer erabiltzen duzue gehiago euskarara ala gaztelera?

T.S. Gaztelerez gehiago hitz egiten dut.

J.B, C.S. eta L.F. Euskaraz gehiago egiten dugu.

Eskolatik kanpo erabiltzen duzue euskara?

Denek. Ez, euskara ez dugu batere erabiltzen, sekula ez, beno orain bai zuekin.

Zenbat ordu egiten dituzue euskaraz eskolan?

Denek. Batzuek astean 3 orduz bakarrik izaten ditugu euskarazko klaseak, eta beste batzuek, 3 ordu horiez gain, Historia ere euskaraz ematen dugu, beste 3 ordu alegia.

Zein ikaskuntza sistema duzue?

Denek. Iparraldean, Hezkuntza ez da Hegoaldean bezala hizkuntza ereduetan banatzen. Ez daude A, B eta D hizkuntza ereduak; euskara 3 orduz ematen dutenek -10 dira-, Euskara aukerako arloa dute, eta gainontzeko 9 lagunok Elebidun deitzen den siste-

man ikasten dugu; beraz, guztira 6 ordu bakarrik egiten ditugu astean euskaraz.

Familiako norbaitek ba al daki euskaraz?

C.S. Ez, nire gurasoek ez dakite asko, baina anaiak pixka bat bai.

T.S. Inork ere ez, nire gurasoek ez dakite batere.

L.F. Nire gurasoek ez dakite euskaraz, baina anaiak bai.

J.B. Nire gurasoek ez dakite, anaiak pixka bat bai.

Zer pentsatzen duzue elkartrukeari buruz?

J.B. eta C.S. Oso ondo iruditzen zaigu, gogo handia genuen eguna iristeko.

T.S. eta L.F. Ontsa da, euskara erabiltzeko eta hobetzeko aukera ematen digu-eta.

Eskolako ikasle guztiak elkarrekin irteten zarete?

Denek. Ez, ez gara elkarrekin egoten, ez garelako herri berean bizi, eta bakoitzak bere lagun taldea duelako, nahiz eta denak lagunak izan.

Kanboarroi zer gustatzen zaizue egitea?

T.S. Denbora librean errugbian jokatzea gustatzen zait.

L.F. Baita niri ere, asko gustatzen zait.

C.S. Niri ordenagailuan ibiltzea gustatzen zait.

J.B. Niri, Claireri bezala, ordenagailuan ibiltzea gustatzen zait.



INKESTA

AMAIAKAK BAT

- 1.- Noiz hasi zinen futboleant jokatzen? Eta Amaiakak Baten?
- 2.- Zein postutan jokatzen duzu? Gustuko al duzu postu hori?
- 3.- Zein da zure futbol talde gustukoena? Zergatik?
- 4.- Trebea izango bazina zer taldetan jokatu nahiko zenuke?
- 5.- Etorkezunean ikusten al duzu zure burua futbolari?



Jon Urtubia:

- 1.- Duela hiru edo lau urte hasi nintzen, eta Amaiakak Baten aurten.
- 2.- Ezkerreko alboan jokatzen dut. Bai, gustuko dut postu hori.
- 3.- Reala, errealzalea naizelako.
- 4.- Realean jokatu nahiko nuke.
- 5.- Ez, txarra naiz-eta.



Ane Larrañaga:

- 1.- Duela bost urte hasi nintzen, eta Amaiakak Baten orain hiru urte.
- 2.- Eskuineko alboan. Bai, gustuko dut.
- 3.- Reala, Gipuzkoakoa delako.
- 4.- Realean, talderik gogokoena dudalako.
- 5.- Ez, ez zaidalako gustatzen.



Lorena Egaña:

- 1.- Hirugarren mailan nengoenean, eta Amaiakak Baten iaz.
- 2.- Erdian ezkerretik jokatzen dut. Bai, gustuko dut.
- 3.- Reala, Gipuzkoakoa delako.
- 4.- Realean, nire talderik gustukoena baita.
- 5.- Ez, ez dut futbolaria izan nahi.



Patri Urbieta:

- 1.- Multi-kiroletan hasi nintzenean. Amaiakak Baten, duela hiru urte.
- 2.- Eskuineko alboan jokatzen dut. Bai, gustuko dut.
- 3.- Real Madrid eta Real Madrid ditut gogokoena. Xabi Alonsorengatik.
- 4.- Real Madriden eta Realean.
- 5.- Ez, ez dut futbolaria izan nahi.



Julen Monasterio:

- 1.- Bost urterekin hasi nintzen, eta Debako taldean aurten.
- 2.- Atezaina naiz, eta gustuko dut.
- 3.- Reala, Gipuzkoakoa delako.
- 4.- Bartzelonan, jokalaria onak dardelako.
- 5.- Ez. Hobeto moldatzen naiz beste gauza batzuetan.



Miren Berasaluze:

- 1.- Multi-kiroletan hasi nintzenean. Duela lau urte.
- 2.- Ezkerreko alboan. Bai, gustuko dut.
- 3.- Reala, Gipuzkoakoa delako.
- 4.- Realean, gustukoena dudalako.
- 5.- Ez, ez zaidalako asko gustatzen.



Udane Oiarzabal:

- 1.- Duela lau urte ekin nion futbolari; Amaiakak Baten iaz hasi nintzen.
- 2.- Erdian. Bai, gustuko dut.
- 3.- Reala, Gipuzkoakoa delako.
- 4.- Realean, nire talderik gustukoena baita.
- 5.- Ez, txarra naizelako.



Aitor Zubikarai:

- 1.- Zazpi urterekin hasi nintzen jokatzen. Amaiakak Baten 12 urterekin.
- 2.- Ezkerreko alboan. Bai, gustuko dut.
- 3.- Reala, gure herrialdekoa delako.
- 4.- Realean, realzalea naizelako.
- 5.- Ez, txarra naizelako.



Amaia Mendikute:

- 1.- Duela lau urte hasi nintzen futboleant, eta Amaiakak baten iaz.
- 2.- Aurrelaria naiz; bai, gustuko dut.
- 3.- Gipuzkoakoa denez, Real da nire talderik gustukoena.
- 4.- Realean.
- 5.- Ez. Neskak zaila dugulako futbolar bizitzea, eta txarra naizelako.



Jon Garate:

- 1.- Bost urterekin hasi nintzen, eta Debako taldean duela bi urte.
- 2.- Alboan jokatzen dut. Bai, gustuko dut.
- 3.- Reala, Gipuzkoakoa baita.
- 4.- Realean, gustatzen zaidalako.
- 5.- Ez. Nahiago ditut beste gauza batzuk.

EGILEAK: LEIRE ALBERDI ETA NEREA AGIRREAGABIA

ESKIATZERA IRTEERA



Urtero bezala, martxoaren 9an eskiatzera joan ziren 3.DBHko ikasleak eta 4. DBHko batzuk. Ostiralean, goizaldeko 5ak eta laurdenean elkar-tu ziren autobus geltokian Gourettera eskiatzera joateko. Iritsitakoan eskiak eta kaskoak hartu zituzten, eta irakasleekin taldeka banatu ziren bi orduko klaseak eginez. Bazkalondoren ere eskiatzera igo ziren. Elurra oso ondo zegoenez, oso ondo pasatu zuten bertan, eta esperientzia errepikatzeke gozoz itzuli ziren.

DenBora-pasa

AHO-KORAPILOAK

***Sanson zein zan?
Sanson Sanson zan!
Eta Sanson Sanson ez bazan,
Sanson zein izango zan?
Sanson Sanson ez bazan ez zan
Sanson izango!**

***Akerrak adarrak okerrak ditu,
adarrak okerrak akerrak ditu,
adarrak akerrak okerrak ditu,
okerrak adarrak akerrak ditu**



***Axala-maxala mantalin,
kipula-tipula kattalin,
kixkiti-kaxka kaxkatero,
tortila-mortila kozinero.
Mistika-mastika ñam
ogia, tortila, pastela... jan
zarrat eta zurrut
parrat eta purrut!**

***Txokolo mokolo txingo
txingola mingola txango
txankala mankala zart
zankulu zinkulu zirt!**

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALERRA 2011-2012

Nerea Agirregabiria
Leire Alberdi
Sara Anton
Ainhoa Azkarate

Ane Baroja
Alaitz Escudero
Ena Esmoris

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea

Udaberria eta nekazaritza



Izadia edo natura zer den definitzea zaila egiten zaigu. Hor dago, baina, ulertzen kosta egiten da. Gizakiok lau urtarotan banatzen dugu urtea: udazkena, negua, udaberria eta uda. Benetan harrigarriena eta miresgarriena udaberria dela iruditzen zait. Debako negu hotz eta elurtua igaro ondoren, zumardiko bitxiloreak, herritarrak bezala, kanpora irteten hasi dira, udaberriko eguzki goxoa hartzeko helburuarekin.

Eguna luzatzen doa eta tenperaturaren goranzko joera nabari da. Iritsi da udaberria: txoriak egunsentian abesten, erleak lorez lore eta landare eta zuhaitzek bizirauteko zikloari ekin diote, kimu berriak sortuz eta haziak erneaz.

Pertsonok, gure biziraupenerako jaki ezberdinez elikatzen gara eta jaki hauek lortzeko, lurra lantzen dugu izadiko zikloak kontuan hartuta.

Nekazaritzaren eboluzioa izugarria da; eta, lehenago baratze txiki eta hurbilekoak desagertzen doaz ikuspegi industrial eta urruneko batera bideratuta; herritarrentzako baratza supermerkatu handiak bilakatu dira, urtaro guztietan produktu berdinak apaletan dardelarik.

Udaberria ortuko lanak egiteko urtaro bizia da: haziak erin, lurra landu, lurra ongarritu ...

Orturik ez duenak eta balkoi edo terraza duenak badu aukerarik udaberriarekin batera gure elikagaiak nola sortzen diren ikusi eta ikasteko. Horretarako lurra aukeratu, haziak erin eta ureztatzea besterik ez da egin behar. Gaur egun liburu eta informazio ezberdin ugari aurki genezake liburutegian edo interneten bertan.

Martxoa-apirila tomateak, letxugak, piperrak, kalabazinak, porruak eta tipulak eriteko garai aproposa da, beti ere leku babestu batean. Eta San Isidroetarako (maiatzak 15) aire librean landatzea komeni izaten da.

Beraz, zer hobe udaberriaz gozatuz gure jakiak sortzen ikustea baino.



Koldo Aperribai Arakistain

Herri ekimeneko euskal hedabideek sektorearen diagnostiko eta erronka komunak aurkeztu dituzte

Diagnostikoa abiapuntu moduan hartuta, elkarlanean sakontzeko apustua egin dute eta erakundeei hausnarketa mahai bateratuak osatzeko deia egin diete

Herri ekimenez sortutako euskarazko 50 bat hedabidek, tartean **Zuhatza Berriketan**-ek, sektorearen diagnostiko eta erronka komunak identifikatzen dituen dokumentua sinatu eta jendaurrean aurkeztu zuten orain aste batzuk Andoainean egindako prentsurrekoan.

Besteak beste, euskararen garapenean eta hiztun komunitatean euskal hedabideek duten funtzio sozial eta kulturala zein pisu ekonomikoa ere gogorazazi zuten: "Euskarazko hedabideen lana 450.000 lagunengana iristen da, eta horretarako 600 langile baino gehiago ari dira lanean 100dik gora hedabidetan. Guztira 27 milioi eurotik gorako aurrekontua mugitzen dugu urtean, eta 7 milioi eurotik gorako ekarpena egiten dugu diru publikoetara, gizarte segurantzia eta zergen bidez. Ikuspuntu horretatik ere, gure jardunaren garrantzia azpimarratu eta kontuan hartua izan dadin eskatzen dugu".

Garai zailen aurrean... elkarlana

Sektoreak bizi duen "egoera zaila" nabarmendu zuten, eta lagundu ezean, hedabideok duten egoera okertu egingo dela gaineratu zuten. Adibide gisa azken urteotan itxi diren euskarazko hedabideak aipatu zituzten (*Ttiti-Ttapa Telebista*, *Geu Gasteiz*, *Txaparro*, *Esan-Erran Irratia*, *Nabarra...*).

Era berean, etorkizunera begi-



rako erronka nagusiak ere aipatu zituzten agerraldian.

Sinatutako agiriak jasotzen dituen lehenetsun artean aipatzen da, adibidez, hedabideek inbertsio handiak egin behar dituztela (eta egiten ari direla), "batetik teknologiak eragindako negozio ereduaren aldaketari aurre egiteko, eta bestetik bertan diharduten langileen lan baldintzak hobetze aldera".

Horrekin batera, "atzean ez geratzeko eta bezeroei merezi duten zerbitzua eta produktuak eskaintzeko, euskal hedabideok ekoizten ditugun produktuen kalitatea eta kudeaketa ere hobetu" behar dutela ohartarazten dute

agiriaren sinatzaileek.

Bestetik, zera azaldu dute: "Etengabeko berrikuntzaren aroan, ikerketa eta hausnarketa ezin ditugu ahaztu eta, horren harira, hedabideen behatoki baten beharra argi ikusten dugu".

Agiriak hedabideen arteko elkarlana zein erakundeekin batera egin beharreako azpimarratzen ditu, eta erakundeei zuzendutako eskaera argiarekin amaitzen da idatzia: "Deialdien sistematik hitzarmen eruedetara joatea ezinbesteko ikusten dugu. Beharrezkoa da erakundeek laguntza politika egokitzea eta sektorearen inbertsioak eta garapena sustatzea".

Jarraipen zabala izan zuen lan erreformaren aurka deitutako greba orokorrak



Martxoaren 29ko greba orokorrak jarraipen oso zabala izan zuen Hego Euskal Herrian, bai industrian, baita eraikuntzan, garraioetan, irakaskuntzan eta osasun sektorean ere. Eta Deban ere arrakasta izan zuen deialdiak; herritar ugari greba eta mobilizazio ezberdinekin erantzun zioten Espainiako

Gobernuak onartutako lan erreformari.

Besteak beste, goiz partean herrian zehar egindako elkarretaratzean eta manifestazioan nagusitu ziren aldarrikapenak - "Murrizketa, erreforma eta inposaketei aurre egin!" lelopean-, eta gero kotxetan antolatu ziren Donostiara, eguerdiko mobilizaziora,



joateko. Arratsaldean ere, asanblada eta manifestazioa burutu ziren Deban.

Bestetik, greba deialdia baino lehen, martxoaren 21ean, LAB sindikatuko kide Jon Iparragirrek hitzaldia eskaini zuen Kultur Elkartearen, Espainiar Gobernuak onartu berri duen lan erreformaren eraginak hizpide hartuta.

Iker Azkarate nagusitu zen junior mailako Amaiak Bat Txirrindularitza Sarian

Caja Rural taldeko Iker Azkaratek irabazi zuen pasa den martxoaren 31n jokatu-tako junior mailako Amaiak Bat Txirrindularitza Saria. Bigarren postuan Xabier Gorrotxategi (Andoaingo taldekoa) gelditu zen, eta Pello Olaberria (Caja Rural) izan zen hirugarrena. Taldeka, bestetik, Caja Rural izan zen nagusi.

Junior mailako lasterketaren 39. edizioa izan da aurtengoa. 82 kirola-

ri aritu ziren lehian -gizonezkoak guztiak-, eta guztira 61 lagunek lortu zuten 86 kilometroko ibilbide osoa egitea. Lasterketa Mendaro, Elgoibar, Arroa, Aizarnazabal, Iraeta eta Mutrikutik pasatu zen -hiru mendate ziren tartean-, eta txirrindulariek batez beste 38,56 kilometro orduko abiadura egin zuten proba.

Eguraldi polita izan zen lasterketan. Hiru istripu izan ziren guztira.

Europar Komisioak praktika on gisa nabarmendu du Debegesaren "Deba Business Forum" proiektua

Debegesa agentziak 2007an abiarazi zuen "Deba Business Forum" egitasmoa, eskualdean dibertsifikazioaren aldeko apustua egin eta produktu berrien ekoizpena sustatze aldera. Eta berriki, ezagutzan oinarritutako ekonomia alorrean praktika on gisa nabarmendu du Europar Komisioak.

Deialdira aurkeztu diren proiektuak honako irizpideen arabera aukeratu dira: Ikerketa, garapena eta

berrikuntza (I+D+i) edota Informazioaren Gizartearen arloan erakutsitako balio erantsia; beste testuinguru batzuetara lekuz aldatzeko ahalmena; eta izatera berritzailea.

Estatu kide bakoitzeko gehienez sei proiektu jasoko dira eta "Deba Business Forum" izango da EAEko bakarra. Hautatutako esperientziak (gure eskualdekoa barne) Europar Komisioaren webgunean argitaratuko dira.

DENBORALDI BERRIA HASI DU GEOPARKEAK

Bisita gidatuen 2012ko programa berria abian du dagoeneko Euskal Kostaldeko Geoparkeak. Denboraldia martxoaren erdialdean abiatu zen, eta azarora bitartean luzatuko da.

Aurtengo bisita programa hiru bloke nagusitan sailkatzen da: Flyscharen Ibilbideko irteerak kostaldean, Karstaren Ibilbidekoak barnealdean eta kultura eta esperientzia eskaintza lurralde osoan.

Geoparkeko arduradunek jakinarazi dutenez, berrikuntza ugari izango dira aurtengo eskaintzan, hala nola haurrei zuzendutako proposamen eta jarduerak, espeleologia irteera gidatuak, Karstaren mundua ezagutzeko zaldi-ibilaldiak eta zetazeoak ikusteko irteerak.

Programa berriaren inguruko informazio gehiago nahi duenak www.geoparkea.com-era jo dezake. Bisita gidatuetarako sarrerak webgunean eskura daitezke, baita Deba, Mutriku eta Zumaiako turismo bulegoetan ere.



Ate irekien eguna

Apirilak 24

Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan

Elkartrukeak

Portaleako Erakusketa

Apirilak 20-29



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



**TELEFONO
INTERESGARRIAK**

OSASUNA

Anbulategia	943 19 24 24
Itziarko ambulategia	943 19 90 42

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Debako Udala www.deba.net

Debako bulegoak	943 19 28 40
Itziarko bulegoak	943 19 90 48
Bake epaitegia	943 19 23 53
Turismo bulegoa	943 19 24 52
Udaltzaingoa	943 60 80 40

IKASKUNTZA - IRAKASKUNTZA

Arte Eskola	943 19 18 04
Debabe Udal Euskaltegia	943 19 22 36
Haur eskola	943 19 20 81
Helduen Heziketa Iraunkorra/EPA	943 19 29 28
Luzaro ikastetxea:.....	943 19 12 02
Iifar Kalea	943 19 10 46
Galtzada kalea	943 19 91 40
Mendata ikastetxea	943 19 11 18
Musika eskola	943 19 20 16

GIZARTE ONGIZATEA

Eguneko zentroa	943 19 29 33
-----------------------	--------------

ZERBITZUAK

Gaztelekua	943 19 27 62
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60
Informatika gela	943 19 21 76
KZgunea	943 02 94 40
Kiroldegia	943 19 22 62
Taxi geltokia	943 19 14 86
Tren geltokia	943 19 10 37

BESTE BATZUK

Parrokia	943 19 14 97
Itziarko Santutegia	943 19 93 04
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
Debanatura	695 783 656
Ur zerbitzuak	943 60 80 02
Kultur Elkarteak	943 19 11 72



Agenda

Apirilak 20, ostirala

-19:00. **Herrira** mugimenduaren batzarra, Kultur Elkartean.

Apirilak 22, igandea

-8:00. **XXI. Zikloturista Proba**, Amaiak Bat Txirrindularitza taldearen eskutik.
 -8:30. Burdin Kurutz M. T. eta Luzaro ikastetxeak antolatutako **mendi irteera**: Kanbo.
 -10:30. **Betizuaren lagunak** irteera eta bisita gidatua, Debanaturak antolatuta.

Maiatzak 1, asteartea

-Langileen Nazioarteko Eguna.

Maiatzak 5, larunbata

-1962ko Amaiak Baten garaipenaren oroimenez antolatutako egitarau berezia. Informazioa 8-9. orrialdeetan.

Maiatzak 13, igandea

-13:00. IV. Deba-Itziar Xtreme Triatloia, hondartzan.

Maiatzak 19-20

-Debarren Eguna. Egitarau berezia antolatuko da.

Erakusketak

-1962ko garaipenaren oroimenez Amaiak Batek antolatutako erakusketa Agirre Jauregian. Maiatzaren 5ean irekiko ditu ateak, eta astebetetz egongo da zabalik.

Aldaketak eskualdeko autobus zerbitzuan

- Debabarreneko eskualdean garraio publikoaren zerbitzua hobetu asmoz, Eusko Treneko autobusek ordutegi aldaketak izan dituzte, zerbitzuen maiztasuna handituz. Erabiltzaileek Debegesaren webgunean (www.debegesa.com-en) eskura ditzakete ordutegi berriak.

Kultur Elkartearen dokumentu funtsa

- Debako Kultur Elkarteak herritarren eskura jarri nahi du Ostolaza dokumentu funtsa. Herritarrek liburuak alokatzeko edo bertan irakurtzeko aukera izango dute. Ordutegia: ostegunetan, 10:30-13:30/16:30-19:30.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: TEL. 669 262 201
BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890



22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikan.

Larunbat goizetan beti bat irekita:
 9:30 - 13:30

OHARRA:

Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera

Deba, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurtien. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.



ABEL

Kristaldegia

*Mota guztietako kristalak
 Lan kristalarasak*

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net

**JAR EZAZU ZURE
 PUBLIZITATEA
 ALDIZKARIAN!**

berriketan@zuhatza.com



haizea *estetika*


Tif. 943 029 607
 Iturkale 22, 1 eskubia
 sarrera Zesterokua plazaatik

MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS Uzuri

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarniak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZKINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edure: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPUZKOA)

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482
ase.deba@teleline.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.starideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel: 943 229 409 - 918 044 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

MAZZANTINI
TABERNA

Sokasun, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

Informatica
Trasneria
Informatika

JL

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 98
Mugikorra: 688 939 601

e-mail: jl@informatikajlelektronika.e.telefonica.net

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



Elgoibar Arreiturre BHI
Arregitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: 013431aa@hezkontza.net
www.elgoibarbhi.net

ELGOIBAR ARREITURRE BHI 2012-2013 IKASTURTEA



BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak
Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak
Humanitateak

Aurrematrikulako datak:
Maiatzaren 2tik 11ra

**GURASOENTZAT BILERA IREKIA: Apirilaren 26an,
arratsaldeko 18:00etan, MENDATA IKASTETXEAN**



EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, LANBIDE ETXETAN
E-13.01.0001.0000.0000



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
LANBIDE ETXETAN E IKASTURTEA